

IZENBURUA:

Zarauzko esperientzia

EGILEA:

Rita Aldabaldetrekua

DATA:

2018/05/17

udaltop

UDALETAKO EUSKARA
ZERBITZUEN TOPAKETAK
www.udaltop.eus



Aurkibidea

1. Nola izan da Zarauzko Euskaraldia sortzeko prozesua? Zein bide egin duzue?	3
1.1. Herrietako batzordeak	3
2. Nola antolatzen ari zarete Zarauzko aktibista sarea eta zein beste ekintza plan nabarmenduko zenuke (Lautada)?.....	4
2.1. Izen-emateak lortu	5
2.2. Prestakuntza eskaini	5
2.3. Sustatzaileak lortu	6



1. Nola izan da Zarauzko Euskaraldia sortzeko prozesua? Zein bide egin duzue?

Zarauz 20.000 biztanletik gorako herrien artean euskaldunena da. 2016ko datuen arabera, 22.500 biztanletik %74,14 euskaldunak dira eta %10,97 ia euskaldunak. Hortaz, zarauztarron %85ak hitz egiten edota ulertzen dugu euskara eta horrek euskaraz soilik bizi daitekeen herria garela esan nahi du. Hala ere, erabilera %50aren bueltan dago.¹

Gurea oso herri bisitatua da; Euskal Herriko, estatu espainiarreko eta nazioarteko hainbat lekutako jendea gerturatzen zaigu, uda partean batez ere. 60.000 lagun izatera ere heltzen gara uda partean, herriko irisgarritasuna hiru bider biderkatzea esan nahi du horrek.

Datu hauekin, euskararen alorrean egoera onean gaudela esan genezaken arren, badaukagu zer hobetu eta non eragin.

1.1. Herrietako batzordeak

Euskaraldia Euskal Herri osoan zehar egingo den arike sozial masiboa da. Hamaika errealitate biltzen ditu bere baitan eta herrietako batzordeen egitekoa izango da ekimen orokorra tokian tokiko errealitatera egokitzea.

Batzorde honek bi hanka ditu, instituzionala (Udala) eta soziala (norbanako edo elkarte euskaltzaleak). Lehenengoak azpiegiturak eta baliabideak jarriko ditu gehienetan, bigarrenek egiten duten lana babestu eta indartzeko.

Zarauzko kasua berezi xamarra izan da, Udalaren eta herritar euskaltzaleen arteko harremana Euskaraldiaren aurretik hasi baitzen, pasa den Korrikaren bueltan, hain zuzen. Zarauzko euskararen jakintza eta erabileraren arteko ezberdintasunaz arduratuta, zerbait egin beharra sentitu zuten bakoitzak bere aldetik hasieran, baina elkarrekin zerbait egitea erabaki zuten.

1 Eustat. EAEko biztanleria lurralde eremu, euskara-maila eta aldika.

http://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/euskara/-/PX_3671_ne02.px#axzz5EzKFAWN1



Topagunearen laguntzaz, Kike Amonarrizen hitzaldiarekin hasi zen abiatze prozesu bat antolatu zuten herriko euskaltzaleak aktibatzeko. Saio horietatik sortu zen Zarauzko Euskaltzaleen Topagunea, bi alorretan lanean hasteko helburuarekin: euskararen erabilera eta kultura.

Garai horretan Euskaraldia martxan hasita zegoenez, euskararen erabileran zentratu behar zuten azpitaldeak Euskaraldia antolatzea erabaki zuten, eta horretarako batzordea sortu. 30 bat pertsonako taldea da egun, herriko euskaltzaleak eta udaleko ordezkariak osatzen dutena. Dinamizatzaile bat ere kontratatu da jardun erdiz koordinazio lanak egiteko. Pozgarria da alor, adin, ideologia eta inguru ezberdinetako kideak euskararen alde elkartuta ikustea.

2. Nola antolatzen ari zarete Zarauzko aktibista sarea eta zein beste ekintza plan nabarmenduko zenuke (Lautada)?

Herrietako batzordeek bi helburu dituzte: herritarrek Euskaraldian ahobizi eta belarriprest moduan izena ematea eta ondoren, 11 egunez, ahobizi edo belarriprest izatea. Helburu horiek lortzeko hamaika modu daude eta herri bakoitzak bereak erabiliko ditu.

Guk, Arabako Lautadan jarraitzen ari diren estrategia jarraitzen dugu. 3 atal biltzen ditu estrategia honek: izen-emateak lortu, herritarrak prestatu eta sustatzaileak lortu. Horrez gain, bada atal guztietan erabiltzen den lege bat ere: 50 zentimetroen legea. Lege honen arabera, Euskaraldia ahalik eta eraginkorra izateko, jendearekin izango ditugun harremanak gertukoak izan behar dute, aurrez aurrekoak. Ondo dago sare sozialak eta buzoneoak erabiltzea, baina jendea erakarri eta parte-hartzea sustatu nahi badugu, harremanak sortu behar ditugu, entzun egin behar diegu, gonbidatu egin behar ditugu, baliotsu sentiarazi.



2.1. Izen-emateak lortu

Ahobizi edo belarriprest txapa janzteko izena emango duten herritarrik gabe ez dago Euskaraldirik. Beraz, batzordeak esfortzu berezi bat egin beharko du komunikazioan. Herriko jendeak Euskaraldiaren berri izatea lortu behar dugu eta, horretarako, profil eta errealitate anitzei egokitzen zaizkien mezuak eta bideak erabili beharko ditugu: mahai informatiboak, eskuorriak, bideoak, sare sozialak, webguneak, aurkezpenak, ekintzak, kartelak, herriko hamaikakoa, simulakroak, etab. Helburua izango da jendeak Euskaraldia zer den ezagutzea eta parte hartzeko proposamena egitea.

Behin parte hartzeko erabakia hartuta, pertsona hori prestatu egin beharko dugu ahobizi edo belarriprest izan dadin, baita bere ingurua ere, ariketa ahalik eta modu erosoenean eta babestuenean egin dezan. Horretarako, prestakuntza eskainiko diegu herritarrei.

2.2. Prestakuntza eskaini

Hainbat modu daude herritarrak prestatzeko, norbanako bakoitzaren disponibilitatea, gustuak, ulermena eta gogoak ez baitira berdinak. Prestakuntzaren helburua izena ematen duten pertsonak ahobizi edo belarriprest figura zer den ondo ulertzea eta barneratzea da, gero 11 egunez konpromiso horri eutsi ahal izateko. Hurrengo hauek herritarrak prestatzeko modu ezberdinak izan daitezke:

- Ikastaro sakonak. Hainbat aholkularitzek Euskaraldiarekin adostutako edukiak biltzen dituzten ahalduentzeko eta aktibatzeko 4-6 orduko tailerrak dira hauek. Aholkularitzek ematen dituzten eta ordainpekoak dira.
- Saio arinak. Batzordekideek emateko moduko orduterdiko tailerrak dira hauek. Horretarako, Euskaraldirik batzordekideak emaile moduan formatuko ditugu lehenik, gero euren herrietan saioak emateko gai izan daitezten. Horrela, borondatezko prestatzaileak egongo dira herri guztietan.

udaltop

UDALETAKO EUSKARA
ZERBITZUEN TOPAKETAK
www.udaltop.eus



- Euskarriak, paperezkoak zein digitalak. Mota askotakoak izan daitezke: eskuorriak, bideoak, dekalogoak, liburuxkak, gomendio sortak, kartelak, webguneak, buletinak emaillez, sare sozialak...
- Simulakroak. Azaroaren 23ra bitartean, probaldi moduan erabili ditzakegun simulakroak egin daitezke, egun pare batez, adibidez. Hala, herritarrek lehen esperientziak izango dituzte eta beste asko animatzeko aukera izan daiteke.

2.3. Sustatzaileak lortu

Sustatzaileak izen-emateak biderkatzen eta prestakuntza eskaintzen lagunduko diguten entitateak dira (edozein motatakoak izan daitezke: komertzioak, elkarteak, establezimenduak, kolektiboak, instituzioak...).

Batzordearen aliatuak izan daitezke herritarrengana heltzerako orduan. Horretarako, entitateei ere Euskaraldia zer den azaldu eta sustatzaile izatea proposatuko diegu. Sustatzaileek beren barruan ahobizi eta belarriprest dinamika aplikatuko dute eta batzordearen lana izango da hori erraztea. Horretarako, harremanetan egongo gara beraiekin, baliabideak eta prestakuntza eskainiko dizkiegu eta identifikazioa emango diegu.

Sustatzaileek egin ditzaketen gauzen artean daude:

- Komunikazio lanak. Kideei Euskaraldiaren informazioa zabaltzea.
- Saretzea. Beste sustatzaileak ere animatzea eta bere parte-hartzea publiko egitea.
- Herria prestatzen laguntzea. Establezimenduan Euskaraldiko identifikazioa jartzea.
- Izen-emate kanpaina zabaltzea.
- Prestakuntza. Deialdiak zabaltzeaz gain, bere kideen prestakuntza saioak kudeatzea.
- 11 egun Euskaraz. Kideek Euskaraldian ahobizi eta belarriprest moduan parte hartzea.

Zarautzen honetan gabilta orain. Hamaikakoaren aurkezpen ekitaldia egin genuen apirilaren amaieran eta saretze lanetan gabilta, herriko entitateei sustatzaile bilakatzeko proposamenak egiten. Arlo ezberdinetako entitateekin izan dugu harremana (kirol elkarteak, kultur elkarteak,

udaltop

UDALETAKO EUSKARA
ZERBITZUEN TOPAKETAK
www.udaltop.eus



eskolak, aisialdi taldeak, jubilatutako elkarteak, euskaltegiak, merkataritza eta ostalaritza elkarteak, etab.) eta denetan oso harrera ona izan dugu.